

**IKERLAN 50. URTEURRENA**  
**50 ANIVERSARIO IKERLAN**

2024-10-24 Arrasate-Mondragón 24-10-2024

*Lehendakariaren hitzaldia – Discurso del Lehendakari*

Sailburua, Alkatea, Herri agintari eta ordezkariok, Mondragon Korporazioko arduradun eta kideok, IKERLAN-eko presidente eta lagunok, jaun andreok, arratsalde on!

Eskerrik asko ekitaldi honetara gonbidatzeagatik eta, ezer baino lehen, zorionak IKERLAN 50 urte betetzeagatik!

Zorionak kate luze honetan, hasieratik, “50 urte teknologia bizi eta biziara” duzuen guztioi. Inportantea da teknologia gure herrirako.

Bistan da aitzindariak izan zinetela eta, gaur ikusi dugunez, etorkizunari begira jarraitzen duzue eta hori aipagarria da oso.

Ez da gutxi egin duzuen.

Ez da bat ere erraza 50 urtez hor mantentzea. Egunero lehiakorrak izaten. Egunero industriari soluzioak eskaintzen. Ez da erreza eta hemen zaudete eta etorkizun oparoa gainera aurretik izanik.

Euskadin dugun ehun industrialia ez da bat-batean sortu. Ez da egun batetik bestera loratu. Jarrera batek ekarri gaitu honaino. Egunero hobeak izateko jarrerak ekarri gaitu honaino.

Ez ginateke gaur garena izango egun batean konformatzea erabaki izan bagenu. Hori ez da inoiz izan hemengo jarrera eta ez inoiz izan Ikerlan-en egon da jarrera kontrakoa egin dugu beti euskaldunok. Zertan hobetu dezakegun galdetzen diogu gure buruari egunero. Horrek mugiarazten gaitu.

Hitz batean esanda: autoexijenteak gara, izan gara, eta izan behar dugu etorkizunean ere. Eta errealitatea ikusteko jarrera hori gakoa da geroz eta lehiakorragoa eta konplexua den mundu honetan aurrera egiteko.

Irtenbide berriak bilatzen ditugu. Ikertzen dugu. Bide ezberdinak etengabe jorratzen ditugu. Kuriosoak gara.

IKERLAN-ek hori guztia ezin hobeto ordezkatu du eta, gaur, horren erakusle den BIZITEK erakusketa ezagutzen dugu eta bertan bilatzen dira balio guzti horiek.

Hoy nos proponéis un viaje interactivo, audiovisual y participativo para descubrir la historia, las personas, los desarrollos tecnológicos y el impacto generado por IKERLAN.

Me detengo en esto último, el impacto. Vuestro trabajo tiene una traslación directa a nuestro tejido empresarial e industrial vasco. Un impacto que nos hace ser mucho más competitivos. La transferencia de tecnología y de conocimiento avanzado son ingredientes básicos para la competitividad.

Invertir en conocimiento es invertir en nosotras y nosotros mismos. Es ahí donde Euskadi debe encontrar su lugar.

El carácter emprendedor e industrial vasco que forma parte de nuestro ADN debe acompañarse con una actitud permanente hacia la innovación y el conocimiento avanzado, hacia el desarrollo tecnológico. Adaptándonos a cada necesidad y en cada momento histórico pero ocupando el lugar en la historia que por capacidad y posibilidades nos corresponde y sin tener miedo a fracasar incluso cuando tenemos que tomar determinadas iniciativas.

Hoy Europa se juega su futuro. Todas las recomendaciones que estamos viendo últimamente hablan del renacimiento industrial europeo. Creo que eso nos tiene que hacer ver que hay esperanza en el futuro.

Eso nos exige dar un salto como vascas y vascos en el ámbito de la innovación, investigación, especialización, emprendimiento y de la apuesta industrial. Todo esto en el ADN de IKERLAN, en 50 años de historia, y de historia de éxitos.

Creo que podemos y debemos jugar un papel determinante en este renacer de la industria europea porque ese renacer es lo que nos va a permitir contar con bienestar a futuro, es el sembrar hoy para recoger mañana. IKERLAN y su contribución a la industria nos mostráis el camino: tecnología con actitud.

IKERLAN-ek industria du helburu. Eta, beraz, ikerketaren eta berrikuntzaren bide horretan aurrera egitera animatzen zaituztegu. Guztion onurarako izango da.

Euskal erakundeok beti izango gaituzue bidelagun.

Segi ikertzen, berritzen, hobetzen eta aurrerapausoak ematen. Segi zuen emaitzak ehun ekonomikoarekin partekatzen. Segi “teknologia bizitzen”. Horrek guztiak ekarriko baitu gure herria bere etorkizunaren jabe izatera.

Zorionak berriz ere IKERLAN, eta eutsi goiari, mila esker!